

bidegileak



Bingen Ametzaga (1901-1969)

Egilea:

XABIER IRUJO

Injineru eta legegizon

Bingen Ametzaga 1901eko uztailaren batean jaio zen Algortako Basagoiti etorbidean kokaturiko *Iturrieta* etxean. Bingenen aita, Pedro Ametzaga Abaroa (1852-1919), XVI. mendearen aurretik Getxon erroturiko Ametzagatarren leinuko enpresa gizon eta abokatu arrakastatsua zen. Ama, Maria Aresti Sustatxa (1862-1945), Pedoren bigarren emaztea zen. Arestitarrak Getxon XVI. mendean tinkaturiko familia dugu. Vicente de Paúl Laureano, Bingen, zazpi anai-arreben artean gazteena zen. Algortako San Bernardo eskoletan burutu zituen lehen mailako ikasketak. Oso txikitatik du hizkuntzetarako tre-



Bingen Ametzaga (1901-1969) 1948an.

betasuna. Pilotazale sutsua, orduak egin zituen San Nikolas elizaren horman. Futbol zalea ere dugu Bingen. Bere anaia Ramonek (1890-1982) Arenas Club de Futbol 1913an lehenengo dibisioan Estatuko Txapelketa eskuratu zuen talde getxotarreko aurrelariak, futbol taldearen jantzien arduradun izendatu zuen Bingen, aitzakia horrekin *Jolaxeta* eta *Padura* zelaietan igandero partiduetara Areetakoekin joan zedin.

Sabino Aranarekin adiskidetasuna bide, Pedro Ametzagak Euzko Alderdi Jeltzaleari doan emandako lur sailetan eraiki zen garai hartako Algortako Batzokia, *Iturrieta* etxearen ondoren. Manuel eta Ramon anai nagusien ereduari jarraituz, Bingen ere EAko kide egin zen. Ordutik Euskal Herriaren gatazka politiko eta kulturala Ametzagaren bizitza eta lanaren ardatz nagusia dugu. Hamasei urterekin euskara lantzeari ekin zion bere kasa. Maria Arestik, euskaldun zaharra izan arren, gaztele-raz hitz egiten zuen etxean seme-alabekin. Zerbitzariekin eta adiskideekin ordea euskaraz mintzatu ohi zen. 1915eko urte hartan Bingenek bere amarekin euskara soilean hizketan hasiko zela erabaki zuen, bai eta zenbait aldizkarietan bere lehenengo lanak argitaratzen hasiko zela ere.



Mercedes Iribarren Gorostegi
(1905-1980).

Pedro Ametzaga 1919ko urriaren 13an hil zen zabaldutako gripe espainiarraren eraginez. Hiru hilabete geroago, 1920ko hasieran, Blanca eta María, Bingenen bi ahizpa bizkiak, eritasun honek jota hil ziren ere. Aitaren heriotzaren ondorioz familiaren negozioak gain behera etortzen hasi ziren. Merkataritza Injinerutza Teknikoko ikasketei ekin zien Bingenek etxeko afera ekonomikoaz ardurtzeko. 1921ean burutu zituen ikasketak Bilboko Injineru Eskolan.



Juliana Gorostegi
Urkidi (-1905).
Mercedes jaiotzerakoan
hil zen.



Iturrieta baserria, Ametzagarren Algortako jaiotetxea.

Halarik ere, familiaren egoera ekonomikoa ez zen hobetzen, hain zuzen ere Pedrok, anai nagusiak, Argentinako bidea hartu behar izan zuen. Bestalde, Ametzagaren humanitateetarako zaletasun ageriak 1924ean Valladolid-eko unibertsitatean zuzenbidea egitera bulkatzen du. Hiru urtetan burutu zituen ikasketak, bikain eder batekin.

Errepublikar Koalizioak 1931ko apirilaren 12an udal hauteskundeetan izandako garaipena zela eta, José Antonio Agirrek, Bingen Ametzagak eta beste algortar batzuk Ge-

txoko udaletxearen balkoian Primo de Riveraren diktaduraren amaiera eta Bigarren Errepublikaren ezarpena aldarrikatu zuten. Euskal Errepublikaren ezarketaren proiektu politikoa ere plazaratu zuten herriaren txalo eta oihuen artean. 1932an Ametzaga Getxoko auzo epaile hautatu zuen herriak. Hiru urtez aritu zen lan horretan (1932-1935). José Antonio Agirre, Ametzagaren gaztaroko laguna, Getxoko alkate zen orduko. Auzo epaile eginkizunetan Jose Antonio eta Mari Zabala ezkondu zituen Ametzagak.



Algortako familia. Eserita, Pedro Ametzaga Abaroa (1852-1920) eta Maria Aresti Sustatxa (1862-1945). Zutik ezkerretik eskuinera, Blanca (1896-1921), Ramon (1888-1980), Bingen (1901-1969), Joxe Mari (-1943) eta Maria (1896-1921).

Idazle eta irakasle

Bingen Ametzagak 1920 eta 1936 bitarte lantzen ditu bere bizi intelektualaren ardatz izango ziren gaiak. Bizitzako sosegu eta egonkortasuneko urte bakar hauetan zortzi hizkuntza ikasi zituen. Hogei urterekin, gaztelera, ingeleza, frantsesera eta euskaraz ondo hitz egin eta idazten zuen. Hortik aurrera latina eta grekera klasikoa ikasi zuen, bai eta italiara eta alemanierako hastapenak landu ere. Hizkuntza guzti hauetan lan egingo du Ametzagak bai produkzio mailan bai itzulpenetan.

Euskal Erriaren Alde aldizkariak antolatutako itzulpen lehiaketan lehenengo saria eskuratu zuen 1928an Cervantes-en *El licenciado vidriera*-rekin. 1935ean, Resurrección María Azkuek beka bat eskaini zion Ametzagari Alemanian ikerketa linguistikoan lan egiteko. Alabaina, gudak proiektu hau ezerezean utziko du.

Bestalde, Euskal Herriko kondairan eta kultur gintzan formazio sendoa erdiesten du Bingenek. 1933an, abokatu langelan lan egiteaz gain, kondaira eta literatura klaseak eskaintzen ditu Getxoko Bigarren Hezkuntzako Ins-

titutuan. Aldi berean, *Instituto Vasco de Las Arenas*-ko sortzaile eta irakasleetarikoa bat dugu Bingen. 1936 eta 1937 bitarte, Lezama Legizamon bizkaitar leinuaren Getxoko etxearen liburutegiaren antolamenduaz, katalogazioaz eta zaintzaz arduratzen da Ametzaga.

EAJko *Euzkadi* egunkarian eta Euskal Erriaren Alde aldizkarian agertzen dira Ametzagaren lehen idazkiak. Bidenabar, El Gobela Algotako aldizkari kultural eta politikoa sortu zuen José Olivares Larrondorekin, *Tellagorri*-rekin, eta Ramon Ametzaga agerkariko administratzaile eta argitaratzailearekin. Guatemalako Euzko Gogoa aldizkariak aipatzen du Ametzaga *Aitzol gizaldiaren* olerkarien artean, 1936ko guda aurreko urteetan olerkigintzan nabarmendu baitzen. José Ariztimuñok, *Aitzol*-ek, 1930 eta 1936 bitarte antolatutako zenbait *Eusko Olerti Egunak* izeneko lehiaketetan parte hartu zuen, behin baino gehiagotan saritua izan zelarik. Era berean parte hartzen du Ametzagak Getxoko *Euskara Egunen* antolaketetan. Kepa Enbeita bai eta bere semeak Sabin eta Balendin bertsolariak ondo ezagutu zituen antolaketa lan hauetan Bingenek.

Hezkuntzako zuzendari

Guda hasi eta Errepublikako gobernuak Estatutua baieztatu ondoren, Jesús Maria Leizaolak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko zuzendariak, 1936ko azaroaren 12an luzatutako aginduari jarraikiz, Lehen Hezkuntzako zuzendari orokorra izendatzen du Ametzaga. Leizaolak aitortuko zuen bezala, «euskararekiko agertutako zaletasuna eta gure hizkuntzaren alde buru-belarri egindako lanarengatik».

«Argitu behar ordea –jarraitzen du Leizaolak– beste lan bat izan zela hasiera-hasieratik Ametzagaren ardura nagusia, kultura arloan egin zezakeen lana baino lehentasun handiagokoa alegia; izendatu aurreko asteetan germaniar hegazkineriak, Francoren armadaren laguntzan, Bilbo eta Areeta bonbardatu zituen, bertan 96 pertsona hil zirelarik, haien artean hemezortzi emakumezko eta haur. Hortaz, Ametzagak, Lehen Hezkuntzako zuzendaritzan funtsezko ardura bat izan zuen: haurren eskolak eta eskolatuak zeuden umeak bonben arriskuaren kanpo lekutzea. Ziurta dezaket Bingen Ametzagak Bizkaia goitik behera arakatu zuela ikasleria eta irakasleriarentzako eskualde eta zokorik seguruen bila. Aldi berean alkate arduratsu eta kontzientziatuen hegalepean zeuden egoitzak hautatu zituen.»

Zuzendari izendatua eta egun gutxi batzuetara, abenduaren 4an, 1936ko Estatutuaren babesean ateak ireki zituen lehenengo ikastola martxan jartzeko agindua luzatu zuen Ametzagak. Hain zuzen ere, Plentziako ikastola irekitzeko agindua, eskolak irekitzeko eta irakasleria izendatzeko gaitasuna eskaintzen zion Eusko Jaurlaritzako aginduekin batera luzatu zion Leizaolak Ametzagari. Plentziako San José Ikastolaren behin-behineko zuzendaritza eta kudeaketarako, udalaren baieztapenarekin, Alejandro Ruiz Ibáñez, Félix Dorronsoro Urdanpilleta eta Isabel Larra-koetxea Gallaga lehen hezkuntzako maisuak izendatu zituen Ametzagak.

Lehen ikastola ofizial hau Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Kultura Saileko babes eta ardura zuzenpean geratu zen. Ikastolen sorrerarekin batera euskal testu liburuen itzulpen eta eraketari eta irakasleriaren heziketarako lehen ikastegiak osatzeari ekin zion. Hala burutuko zuen Ametzagak, guda minean eta frontea Bilbotik 48 kilometro eskasera, bere biziko ametsa, euskal hezkuntza sistema baten osaketa, euskara eta euskal kulturaren pizkundetarako lehen urratsa alegia. Hogeita hamaseiko gudak Eusko Jaurlaritzaren esfortzu guztiak etengo zituen eta Plentziako San José Ikastola, Euskal Herriko beste ikastola guztiak bezala, berrogei urte luzez giltzatuko zituen erregimen berriak.

Haurren ebakuazioa

Bilbo frankisten eskuetan erortzeaz, Ametzagak Ikastolen hustuketari eta eskolaturiko haurren ebakuazioari ekin behar izan zion. Erbesteko bidea hartzen zuten atzerriratuen eta espetxeratuen seme-alabak ziren hauek, hala edo hola, familiarekin kontaktua galdu zuten haurrak ziren guztiak. Haur multzo zabal honen lekualdaketak itsasaldetik Ingalaterra, Frantziara edo, azkenik, Errusiara bideak irekitzea suposatzen zuen, bai eta herrialde hauetan haurrak ostatatzekeo kanpamentuak eratzea ere.

Eusko gudarostearen azpiraketak heriotza zigorra eta ondasun guztien



Inocencio Iribarren Egafía (1864-1943),
Areetan finkatutako enpresari gipuzkoarra.
Bizkaian Talleres Erandio enpresaren sortzailea.

bahidura dakar Ametzagaren gain, *La Gaceta del Norte* egunkarian plazaratu zuten bezala, «Bizkaiko hondamendiaren eragileetariko bat izateagatik». Hain zuzen ere, seigarrena aipatzen zuten Bingen «Bizkaiko etsaien artean». Ekainaren 14ko goizeko hiruretan, bonbardatutako Areetako parrokiaren, apaiz laguna eta sakristau gaztea lekuko, ezkondu ziren Bingen Ametzaga eta Mercedes Iribarren Gorostegi,

Inocencio Iribarren Egaña (1864-1843) Aretan finkatutako eta *Talleres Erandio* sortu zuen mutrikuar enpresariaren alaba gazteena alegia. Ezkondu bezain laster Santanderreko bidean utzi zuen Bingenek arriskutik kanpo bere emaztea, Juliana Iribarren ahizparekin. «Trumilka abiatzen zen jendetza Santanderrerantz atzean bonben distirak ikusten genituelarik», gogoratzen zuen Mercedesek.

Donibane Garaziko gotorlekuan lekutuko zen 500 haurrentzako koloniaren ardura zuzena hartzen du Ametzagak. Horretarako Bilbora itzuli behar izan zuen bertan zegoen Leizaolarekin eta Eusko Jaurlaritzako beste kideekin haurren garraioaren azken prestakuntzak bideratzeko. «Bilbon mortero faxisten eztandak gure alboan sentitzen eta azken haurrak Santanderrerantz trenez bidali genituenean, Leizaolari Kultura Sailaren egoitza husteko garaia zela adierazi nion –zioen

Ametzagak–. Leizaolak ordea ez zuen inongo aztoramenik agertzen.»

Azkenik, Bilboko Hotel Carlton-ko bulegoak utziz eta italiar armadak orduko garaitua zuen eskualdea zeharkatuz, Getxora abiatu zen Bingen bere amari atzen agurra emateko. Hori izango zen María Aresti ikusiko zuen azken aldia. Hala gelditu zen María, bakarrik, *Iturrietan*, 75 urterekin eta Joxe Mari seme gazte elbarriaren arduran. Gerora jakingo zuen Bingenek ama errizino olio edatera zigortua izan zela, zuritua, eta *Comisión Central Administradora de Bienes* delako erakundearen aginduz, ondasun guztiak bahitua, hamabost egunetan bere etxea huster behartua. Bere delitua, hiru seme erbestertuen ama izatea. Kalean eta gabezia gorrian Getxoko famili lagun batek bere etxeko ateak ireki zizkion eta bizitza berregiteko aukera eman.

Itsasoko ibilera tristea

Santanderretera ailegatu eta Ametzagaren lehen ardura 500 haurrentzako ostatu bat lortzea izan zen, jaterik ez zegoen eta. Errepublikako agintariekin hamaika liskar izan eta gero, hondartza aurrean oraindik ere lekuturik dagoen Hotel Real-en lortu zuen Bingenek haurrak ostatatzea.

Aste bete geroago, ekainaren 22an, *Ploubazlanec* ikatzontzian, Churchill lehendakari britainiarraren Bizkaiko golkoaren itsas blokeoa errespetatzeko agindua beteko ez zuen itsasontzi horietako batean alegia, abiatuko dira azkenik Donibane Lohitzunera. *Almirante Cervera* eta *Canarias* kruzeroen eta *España* korazatuaren eskuetan bidaia egitea suposatzen zuen horrek. Ikatzontziko sotoan Ametzagarekin batera ezkutaturik, Joxe Miguel Barandiaranek, Justo Garate medikuak eta beste hiru Santanderko irakaslek



Santanderreko Hotel Real. Hemen ostatatu zituen Bingenek 1937an Iparraldera zeramatzan 500 haurrak.

egin zuten bidaia, hots, itsasontziko gizonezko bakarrak, emakumezkoak eta haurrak bakkarririk onartzen baitziren. «Umeak gosez negarrez, akituak, indarrak utzita, ontziratu ziren» gogoratuko zuen ostera Mercedesek.

Marineleriak ezin hobeto tratatu zituen hauek, urte batez ikusi ez zuten ogi zuria, gazta, mortadela, sardinak, esku zabal eskaini baitzieten. «Hunkigarria zen benetan ume txoak hala ikustea: ez zuten beraien banderillarik uzten; askok, mailetak ahaztuz, berokiaren azpian ezkutaturik zeramaten ogia.» Ilunabarrean *Cervera* kruzero faxista hurbildu zitzairen eta geldiarazteko agindua eman *Ploubazlanec* itsasontziko kapitainari, azken hau espainiar kruzera pasa araziz bidaiarienez zerrenda ikustatzeko. Ea gizonezkoak zeramatzaten galdetu zioten kapitainari, honek ezetz erantzun eta, «si lo desea le acompañamos», eskaini zion *Cervera* itsasontziko kapitainak ironikoki.

Bidea berriz hartu eta, bi egun geroago, ekainaren 24an, Iparraldeko kostan porturatu ziren, arratsaldean Donibane Garazira abiatzeko tren hartzeko. Gabek ailegatu ziren Nafarroa Beheko hiriburura. «Momentu latzak izan ziren haiek –gogoratzen zuen Mercedes Iribarrenek– mutiko eta neskatoak hotzez dardarka, gosez, beldurturik, negarrez, gehienak, gurasoen berririk gabe egunetan. “Garazira ailegatu ginenean”, faxisten publizitatea bide, “gorriak, gorriak!” esaten zigan jendeak leihotatik euskaraz.»

Kolonietako zuzendari

Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Kulturako sailburu zen Jesús María Leizaolak, Bartzelonara deiturik, Justizia Saileko idazkari izendatu zuen Ametzaga 1937ko abenduan. Erbesteko lehen hiru urteetan (1937-1940) euskal haurren kolonien osaketa, antolaketa eta ikuska-pena izan zen haren eginkizunik larriena.

Izatez erbesteko ikastolak ziren kolonia hauek eredu horretan antolatu ziren. Haurren segurantzaz arduratzeaz eta familiekin kontaktuan lehenbailehen jartzeaz gain, euskaraz heziketa orokor bat lortzea zen kolonien helburu nagusia. Euskara, ikasgai gisa lantzen bazen ere, beste ikasgaiak lantzeko hizkuntza zen. Haurren arteko harremanetan komunikabide gisa normalizatzeko euskararen zabaltzea izan zen irakasleriaren funtsezko ardura akademikoa.

Donibane Garazikoa koloniarik handienetarikoa bat zen. *La Citadelle* deituriko gotorleku zaharrean zegoen kokaturik, orduko etxe baten gutxienezko zerbitzuak eskaintzen ez bazituen ere. Instalazioak egokitzeri ekin zion Ametzagak. Horretarako Eusko Jaurlaritzak bulkatutako *Comité Pro-Ayuda*-rekin kontaktuan jarri zen. Frantziako gobernuak behar larrienak betetzeko adina ez zen bost frankoko dirulaguntza eskaini zuen egunean haur bakoitzeko. Leon Blum-en *Front Populaire* alderdiak *Comité d'Accueil aux Enfants d'Espagne* osatutako elkartearen babesean esku-

ratzen zuten dirulaguntza hau frantziar estatuan lekuturiko koloniek. Britainia Handian Leah Manning-ek zuzendutako *Basque Children Committee* osatu zen bertan ziren kolonien beharrei aurre egiteko.

Manuel Ametzaga izendatu zuen Bingenek Donibaneko koloniaren administratzaile orokorra. Guztira 25 irakasle euskaldun, sukaldari bat, bi erizain eta zenbait laguntzailek, horien artean Mercedes eta Juliana Iribarren, osatzen zuten langileria. Kurtsoz eta adinez multzokaturik, 1936 eta 1937ko Bizkaiko Lehen Hezkuntzako Ikastolak bezala antolatu zen erbesteko lehen ikastetxea dugu hau.

Hilabeteak pasa eta haur asko bere familiekin hasi ziren elkartzen. Bestalde, Bigarren Munduko Gudak eta ondorengo nazien okupazioak frantziar estatuan kokatuak ziren koloniak husteratu behartu zuen. Donibaneko gotorlekuak 1939ko otsailean itxi zituen ateak.

Esan bezala, 1937ko abenduan Bartzelonara abiatu zen Ametzaga lau hilabetez Katalunian ziren euskal haurren ebakuazioaz arduratzeko. Lana burutu ondoren Agirre lehendakariaren kotxean muga igaro zuen Paris aldera, 1938ko apiriletik 1940ko ekaina arte han bizitzeko. Parisen jaio zen Ametzagaren lehen alaba, Mirentxu, 1938ko maiatzaren 7an, Frantziako hiriburura ailegatu eta hilabete geroago.

Haur kolonien ikuskapenak eta antolamenduak Britainia Handira etengabeko bidaiak

egitera behartzen du Ametzaga, han lekutu baitziren zenbait kanpamendu, Liverpool, Cardiff edo eta Wight irlakoa besteak beste. 1938ko abuztutik iraila arte Espainiar Errepublikako bulego nagusia dugu Bingen lan egiten, arropa, botika eta bestelako premia biziko gaien igorpenak antolatzen, bai eta euskara klaseetarako eta, oro har, irakaskuntzarako beharrezko liburu eta tresnak biltzen ere.

Bigarren Munduko Guda hasi zen egunean, hots 1939ko irailaren 2an, jaio zen Begoña, Bingen eta Mercedesen bigarren alaba. Bai amak bai jaioberriak gas moztarok jantzi behar izan zituzten, Paris osoa, argiaren hiria, ilunpe itxian zegoelarik. 1940ko ekainean, naziak Parisen sartzen ari zirelarik, hustu behar izan zuten Eusko Jaurlaritzaren egoitza. Bingenek Jesús María Leizaolaren aginduari jarraiki, Eusko Jaurlaritzarako beste egoitza aurkitzeko trenez abiatu zen emaztearekin, Juliana Iribarren eta bi alabekin Bordelera.

Bertan ikusi zituzten lehen aldiz soldadu naziak, «ikaragarria zen, –zion Mercedesek– beren bota luze beltz iltzatuekin harriztatutako kaleetan soldadu garaile eta boteretsu horiek gutan sortzen zuten zirrara». Bertan erre behar izan zituen Ametzagak zeramatzan zenbait dokumentu eta, naziak komunikazio zibilen kontrol osoa eskuratu aurretik, berriz ere trenez Baionara abiatu ziren.

Orduan hasi ziren Ameriketarako bidea hartzeko kontuak. Naziak Iparraldean, eta geroaz ezer jakin ezinean, Mirentxu eta Begoña Juliana Iribarrenen babesean Miarritzen uztea erabaki zuen bikoteak, «bihotza urratuko zidan biziko erabakirik zailena, garratzena, saminena izan zen hura». Marseillan hartuko zuten, 1941eko urtarrilaren 15ean, Alsina itsasontzian Ameriketarako bidea. Bikoteak ez du Mirentxu ikusiko 9 urte bete arte; hil baino aste bat lehenago ikusiko zuen Bingenek Begoña berriro.



Mercedes Iribarrenen Euskadiko pasaportea, Vichy-ko gobernuak aintzatesten ez zuen zenbait euskaldunen agiri bakarra zen hura.



Mercedesen Uruguayko nortasun agiria 5 naziotasun izan zituen Mercedesek batera.

Bidaia luze eta gogorra

Euskaldun, judutar eta espainiar erbeste-teratu askok hartu zuten Marseillatik atera zen azken itsasontzi hau, besteak beste, Niceto Alcalá Zamora, Telesforo Monzon, Francisco Basterretxea, Luis Bilbao, Julio Jauregi, José L. Irisarri, Lucio Aretxabaleta, José Olivares Larrondo *Tellagorri* edo Juan Olazabal. Aurretik egin zuten bezala, bidaiaren ziurgabetasunari aurre egiteko eta denbora zerbaitetan aprobetxatzeko, Monzonek eta Ametzagak euskara klaseak antolatu zituzten lau hilabetekoa izan behar zen eta, azkenik, urte eta erdiz luzatuko zen bidai horretan. Bidenabar, Monzonek *Urrundik* idazten ari zela, Mexikon argitaratuko zuen



Quanza, Casablancatik La Habanara eraman zituen itsasontzia.

olerki liburua alegia, Ametzagari eman zion Algortakoak zenbait zuzenketa egiteko bai eta getxotarraren iritzia jasotzeko ere. Bere aldetik Ametzagak ere olerki liburuxka bat osatu zuen, urteetan burutuko zuen euskal esamolde hiztegi batekin batera.

Dakar, Maroko, Casablanca, Mexiko eta Kuban barrena iritsi ziren Argentinara, batean eta bestean gorabehera eta eragozpen izugarriak jasanda, 1942ko apirilaren 15ean.

Buenos Airesko portuan Ramón María Aldasoro, euskaldunen ordezkaria, Argentinako gobernuaren zenbait politikari eta *Laurak Bat* Buenos Airesko Eusko Etxearen lagun mordo handi bat zain zituzten. *Agur Jaunak* abestuz, bertako dantzariak ongi etorria eman zieten bisitari berriei. «Hunkigarria izan zen oso.»



Bingen Ametzaga eta Mercedes Iribarren Quanza itsasontziaren zubi nagusian. Lau hileko bidaia urte eta erdiko odisea luze bat bihurtuko zen.

Euskarari eta euskal kulturari emana


1942an eta 1943an gogotsu ekin zion Ametzagak lanari. Buenos Airesera ailegatu eta zortzi egun geroago espartin fabrika batean lan egiten du kontulari gisa. Argentinako hiriburuan bi hilabete igaro aurretik *Instituto Americano de Estudios Vascos* osatuko zen elkartearen mahaikide dugu Ametzaga. Maiatzetik abendua bitarte jardunaldi ziklo bat osatuko du, euskal kulturaren inguruko zenbait gai tratatuz. Buenos Airesko *Euzko Txokoan* eta *Acción Vasca*-n eskaini zituen lehenengo jardunaldiak. Eusko etxeetatik at lehenengo hitzaldia *Alvear* antzokian eman zuen 1943ko abuztuaren 4ean. Aretoa bete-betean, Enbeita bertsolariari buruz hitz egin zuen Ametzagak, *Urretxindorren* bertso batzuk abestuz. Arrakasta handia izan zuen ekitaldiak bertan bai euskaldun zein argentinatar politikari eta kazetari ugari zeudelarik. Ordutik astero hasi zen Ametzaga jardunaldiak eskaintzen. Hitzaldietan euskararen gatazka senda aztertu zuen Ametzagak zenbait ikuspuntutatik: politiko, administratibo, linguistiko, arau-emaile, historiko-kultural eta soziologikotik.

Kazetari lanetan ere su eta gar aritu zen Bingen. 1943an urritik abendua arte 13 artikuluk idatzi zituen. *Euzko Deya* eta *Tierra Vasca*

delako aldizkarietan idazten hasi zen. Gero, Uruguayko prentsan maiz ikusten dugun bezala, euskara eta euskal kulturari lotutako gaiiei buruz. Buenos Airesko *La Prensa* egunkarian eta Uruguayko *El Plata*-n hirurehun artikulutik gora idatziko ditu Ametzagak 1943 eta 1955 bitarte. Kazetari lanetan Irujotarrak ezagutu zituen, Andrés eta Pello Mari, azken hau Tellagorriarekin batera *Tierra Vasca* aldizkariaren zuzendaria. Andrés Irujorekin, *Ekin* argitaletxeko zuzendari eta antolatzailearekin, oso harreman estua mantendu zuen Ametzagak hil arte.

Euskal astea eta euskal giroa

Joxe Mari Lasartek, Pedro Basalduak eta Ramón María Aldasorok Montevideoko Euskal Astearen antolakuntzako koordinatzaile orokorra eta prentsa arloa zuzendari-tzaren arduraduna izatea eskaini zioten Ametzagari. Horrekin batera, Uruguayko eremu politikoa, kulturean eta sozialean Euskal Herriaren borrokaren aldeko harremanak lantzeko eskatu zitzaion, Euskal Astearen erlazio publikoak bere esku geratu zirelarik.



Bingen Ametzagak Alsinar idatzitako olerkia.



Mercedes Iribarren eta Arantzazu Ametzaga, bikotearen hirugarren alaba, Montevideoko Plaza de la Independencia-n.

Euskal Astea ospatu baino hilabete bat lehenagotik, egunez egun, Uruguayko egunkari guztietan euskaldunen egoera politiko eta izaera sozial eta kulturalari buruz zenbait berri argitaratu zituen. Euskal Astearen ekitaldietan, lehen aldiz Ameriketara, Ikurrina kale-ratu zen ekintza publiko eta instituzionaletan.

Euskal Astea amaitu eta bestelako ekitaldietan pentsatzen hasia zen Bingen. Lau ekintza ditu orduko Bingenek buruan: kultur erakunde baten osaketa, unibertsitatean klaseak ematea bertan ere euskal kultura eta hizkuntza zabaltzeko, irrati baten prestaketa eta Gernikaren suntsiketaren omenean zenbait enparantza eta kaleren izendatze ekintzak bultzatzea. Ildo berean, *Euskal Erria* eusko etxean zenbait aspektu berri nahi ditu Ametzagak landu eta martxan jarri.

Montevideon Gernika Plazaren inaugurazio-ko ekitaldiak ospatu ziren Gernikako suntsi-



Montevideoko eusko etxeko Onegintza eta Hezkuntza Batzordeko mahaikide eta lehendakari izan zen Mercedes.

ketan hildakoen omenez eta Uruguayko errepublikan zeuden euskal erbesteratuen omenez eta onespenean 1944ko maiatzaren 13an. Montevideoko alkatea, Juan Fabiani, eta beste zenbait Uruguayko pertsonalitate politiko eta kultural izan ziren ekitaldian. Jardunaldia Ametzagak eskaini zuen. Besteak beste, Belgika, Txekoslovakia, Mexiko, Polonia eta Venezuelako enbaxaden ordezkariak bertaratu ziren. Oihartzun zabala izan zuen Uruguayn ekitaldiak.



Montevideoko Gernika plaza. 1944ko maiatzaren 13an inauguratu zen.



Bingen Ametzaga, erdian zutik, 1949an *Euskal Erria* elkarteko batzarkideekin.

Eusko etxetik at, *Departamento de Estudios Vascos* izenarekin Eusko Ikaskuntza Mintegia sortu zuen Ametzagak Unibertsitatean. Zabalpen ofiziala Montevideoko unibertsitatean ospaturiko ekitaldi batekin martxan jarri zen 1945eko uztailean. Eusko Ikaskuntza Mintegiak Biltzarretan parte hartu zuen. Horrela, 1948ko Miarritzeko Eusko Ikaskuntzen Biltzarrera Gabriel Biurrun joan zen Mintegiaren ordezkari gisa.

Lanean jarraitu zuen Ametzagak unibertsitatean euskara eta euskal kulturari txoko berri bat irekitzearen eta, 1944ko apirilean, Eusko Ikaskuntza Mintegiarekin lotuta, Ametzagak

Montevideoko Unibertsitateko *Instituto de Estudios Superiores*-en bi katedra sortu zituen. Lehenengoa, Euskal hizkuntza eta literatura katedra 1944an bertan eta, bigarrena, Euskal Kultura katedra 1951ko apirilean.

1944ko urriaren 24an, zenbait euskaldun, katalan eta galiziar erbesteratuek *Galeuzca* Uruguayn martxan jartzea erabaki zuten. Eta, *Casa de Galicia* egoitza berrian izandako bileran, Uruguayko *Galeuzca*-ko lehendakari izendatzen dute Bingen 1945eko otsailaren 27an. Hortik aurrera asteartero bildu zen *Galeuzca*-ko ordezkariak. Companys plazaren inaugurazioa izan zen sail luze baten lehen



Alfonso R. Castelao Companys plazaren inaugurazioan, Ametzaga Galeuzca-ko lehendakari zenean.


ekintza. 1946ko apirilaren 29an, urtero ospatuko zen *Gernikako Egune*ko ekitaldiak antolatatu ziren lehendabizikoz *Euskal Erria*-n. 1947tik aurrera, urtero antolatatu zen, abenduaren 3an, *Euskararen Eguna* ere.

Politika mailan, Jose Antonio Agirre lehendakariaren izenean eta Joxe Mari Lasarterekin kontaktuan, lanean aritu zen Ametzaga ere. Euskal Prentsa Bulegoko (Oficina de Prensa de Euskadi, O.P.E.) Uruguayko arduraduna izendatu zuen Joxe Mari Lasartek 1947an. Azken honek E.P.B.-ra bidaltzen zituen zenbait berri, halaber, bertatik Uruguayko egunkari guztietara berriak banatzeko aukera zuelarik.

Manuel Irujoren eraginez 1948an sortutako *Asociación de Juristas Vascos* elkartearen kide sortzaileen artean Ametzaga dugu, Batzorde Osagarria Manuel Irujo, Joxe Eizagirre, Juan A. Kareaga eta Xabier Landaburuk osatu zutelarik. Joxe Migel Barandiaranek 1947ko ekainaren 23an idatzi zion Ametzagari Uruguayn «Jakin Bileran» bat osatzeko asmoa agertuz Iparraldean plazaratu berriko *Gernika* aldizkaria laguntzearen. Bestalde, *Eusko Jakintza* aldizkariaren administrazioa eta banaketaren ardura ematen zaio Ametzagari. 1948ko azarotik 1951ko apirila arte egin zuen lan aldizkariaren alde.

Itzulpen lanetan

Itzulpen lanetan jo eta ke aritu zen Ametzaga erbestean. Iturralde y Suit-en *El ruiseñor de Errotazuri* (*Errotazuri'ko urretxindorra*) lanaren itzulpena burutu eta sari bat eskuratu zuen Bingenek 1946ko abenduan. *Hamlet, Danemark'eko erregegaia* Shakespeareren klasikoaren itzulpenean hasi zen, 1945ean. Andrés Irujok lan hau argitaratu zion 1952an *Ekin* argitaletxean. Arrakasta handia izan zuen itzulpen honek bai eta kritika baikorrak jaso Andima Ibinagabeitia, Nicolás Ormaetxea *Orixe* edo eta Jokin Zaitegiren eskutik besteak beste. Britainia Handiko koroatu berriko erreginari Argentina eta Uruguayko eusko etxeen izenean ale berezi bat bidali zioten.



Shakespeareren Hamlet, Danemark'eko erregegaia-ren itzulpena.

Orixeren aholkuz, *Prometeu burdinetan* greziar klasikoaren itzulpena ere burutu zuen. Jokin Zaitegik *Euzko Gogo*a aldizkarian argitaratu zuen lan hau 1959ko azaroan, orduetik aurrera beste zenbait itzulpen plazaratuko zizkiolarik. Juan Ramón Jiménez-en *Platero ta Biok* liburuaren itzulpena, berriz, *Florensa* argitaletxeak plazaratu zion. Orduko Orixeren *Euskaldunak* gazteleraizteko lanak kasik buruturik zituen.



Buenos Airesko *Euzko Deya* agerkarian Andima Ibinagabeitiak Hamleten itzulpena goraltxatzen idatzitako artikulua.

Aurreko lanetaz gain itzulpen multzo zabal bat argitaratu zuen Uruguayko erbesteko urte horietan Buenos Airesko *Euzko Deya* aldizkarian bai eta *Euzko Gogo*a agerkarian ere. Guztira hirurogei bat itzulpen lan burutu zituen Ametzagak 1942 eta 1955 bitarte.



UNESCO-ko Batzar Nagusiaren prentsa bulegoa:
Zabala ministroa erdian; Bingen, zuzendaria, eskuin aldean.

Montevideon 1954ko azaroan eta abenduan ospatu zen Unesco-ko Batzar Nagusiaren antolakuntzarako Justino Zabala Muniz Uruguayko Hezkuntzako ministroak Ametzaga izendatu zuen laguntzaile, prentsa arloa eta bestelako antolaketa lanak aurrera eramateko. Espainiako ordezkariaren etorrerak eta, Ametzagak antolatutako, bai prentsan (*El Sol* eta *El Plata*) bai Montevideoko Unibertsitatean (errektorea eta Zuzenbide fakultateko dekanoa) protestak piztu zituen Francoren gobernuaren azkeneko fusilamentuengatik. Kazetari lanak jarraipen bat Uruguayn izateko *El Plata* egunkari (bere hitzetan «nire eta E.P.B.-ko kazetari tribinatxo partikularra») Juan Andrés Ramírez zuzendariarekin hitz egin zuen E.P.B.-ko notatxoak astero kalera-tzen jarraitzeko.

tatean (errektorea eta Zuzenbide fakultateko dekanoa) protestak piztu zituen Francoren gobernuaren azkeneko fusilamentuengatik. Kazetari lanak jarraipen bat Uruguayn izateko *El Plata* egunkari (bere hitzetan «nire eta E.P.B.-ko kazetari tribinatxo partikularra») Juan Andrés Ramírez zuzendariarekin hitz egin zuen E.P.B.-ko notatxoak astero kalera-tzen jarraitzeko.



Mercedes Iribarreni Montevideoko eusko etxean egindako agur afaria.

Euskararen berpizkunderako plana

Arazo ekonomikoak medio, Caracasera abiatzen da Bingen 1955ean. Berrogeita hamalau urte beterik eta bere emaztea eta bost seme alabetatik bi urte luzez bereizturik bizitzera beharturik, bere bizitzako hirugarren erbesteari aurre egin behar izan zion Ametzagak. Caracasko Eusko Etxean oso harrera ona izan zuen, *Alsina* taldeko eta Algortako lagun zaharrekin berriz ere topatzeko aukera eman zio-larik. Bertan, besteak beste, Luis Bilbao doktorearekin, Lucio Aretxabaleta edota Marixabel eta José Mari Lasartekin topatu zen. Heldu bezain azkar



Alsina taldeko zenbait lagun topatu zituen Ametzagak Caracasko eusko etxean. Bertan ere bestelako adiskide hurkoak egingo ditu urteetan zehar. Argazkian Bingen Ametzaga Ricardo Leizaola eta Juan Ignacio Irujorekin.

lanean dugu Bingen Eusko Etxearen proiektuetan bertako kultur arloetarako idazkari izendatzen dutelarik. Joxe Mari Lasartek erbestean euskararen alde egin zezakeena argitzeko eskatu zion. Bost bat hitzaldi eskaini zituen. Berehala euskara klaseak ziztatu zituen eusko etxean bai eta *Pro-resurgimiento del euskera* euskararen berpizkundearen aldeko plana martxan jarri ere. Parisko Euskal Biltzarra prestatzeko 1957ko otsailean hamaika bilera izan zituzten.



Bingen Ametzaga hitzaldi bat eskaintzen
Caracasko eusko etxean.

Hau izan zen, hain zuzen ere, Bingenen lehenengo ardura Caracasko eusko etxean, Venezuelatik Parisera igorri behar ziren ikerketa lan eta gogoeten antolaketa eta ordenakuntza. Eusko etxean Ikastolaren proiektua aurrera bultzatu nahian Euskal Herritik informazioa jaso zuen Bingenek; urteekin Bingenen ideiek eta lanek *Euzkadi Ikastola* izango dute fruitutzat: Venezuelako euskal semeen lehenengo ikastola, Ameriketako lehen ikastola «ofiziala». Caracasko eusko etxearen idazkaritzatik Venezuelako Eusko Etxeen Federakundea bultzatu zuen ere Bingenek.

Beti bezala diru premian, Bingenek beste sarrera bat lortu behar izan zuen. Hasiera batetan unibertsitatean grekera irakasle



Real Compañía Guipuzcoana de Caracas-ko etxe nagusia
La Guairako kaian.



Irujotarrak 1948an: zutik ezkerretik eskuinera,
Marilo, Pello, Maite eta Agurne. Eserita, Eusebio Irujo Ollo
(1891-1969) eta Pilar Elizalde Esandi (1906-).

bezala lan egitea pentsatu zuen. Urbaneja ministroak, ordea, Nazioaren Agiritegi Historikoan eskaini zion lana, mila bolivarreko soldataz. Venezuelako agiritegi nazionalan lan egiteak Caracasko Gipuzkoar Konpainiaren bi mendez ukitu gabeko agiriak ikertzeko aukera eskaini zion. Agirien ikerketaren fruitua *Hombres de la Compañía Guipuzcoana* liburua dugu. Agiritegiko lanbide hau 1958an galdu zuen, krisialdi ekonomikoa zela eta, bertakoak ez ziren langile guztiak kanporatu baitzituen gobernuak. Kolpe izugarria Ametzagatarrentzat.

Bolívarren *Carta de Jamaika*-ko itzulpena burutu eta argitaratzen du Bingenek *Sociedad Bolivariana*-ko aldizkarian 1966ko otsailean.

Egan eta *Euzko Gogoa* aldizkarietan kolaboratzaile sutsua dugu Ametzaga azken urte hauetan. Euzko Gogoa aldizkariko Jokin Zaitegirekin oso gutuntruke ugaria mantendu zuen Bingenek. Besteak beste, Zizeronen *De amicitia* eta *De senectute* (*Adiskidetasuna* eta *Zartzaroa*) saiakerak Zaitegiren aldizkarirako itzuli zituen, bai eta Oscar Wilde-n *The balad of Reading gaol* (*Reading bahitegiko leloa*) 1954an ere. *Egan* aldizkarian Descartes-en *Discours de la méthode* itzulpena plazaratzen da beste zenbait jatorrizko olerkirekin batera. Bitartean Louis Stevenson-en *Treasure island* euskara herrikoian lantzen ari da. 1957ko uztailean euskara eta euskal kulturaren alde egindako lanarengatik Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen Ametzaga.

Caracasko laurehun urtemuga zelarik bi liburu argitaratu zituen Bingenek 1966an, *Vicente*



Bingen Ametzagaren heriotzaren oroigarria. Barneko aldean Ametzagak idatzitako ondoko olerkia irakur daiteke:

Edozein lorek bere usaia;
Txori bakoitzak bere soifua;
Aberri guztiek bere izkuntza;
Euskara gure odolaren urriña
Ta gure abendaren abots zar eta sendoa da.
Bizi dedilla beti gure biotz ezpainetan

El hombre vasco, Andres Irujok
Ekin argitaletxean 1967an plazaratutako Bingenen azken liburua.



Antonio de Icuza, comandante de corsarios eta El elemento vasco en el siglo XVIII venezolano. Comisión del Cuatricentenario de Caracas delako elkarateak argitaratu zituen biak. Bingenen liburuak izandako arrakasta zela, berehala agortu baitziren, hirugarren bat argitaratuko zuen Bingenek ere *El General Juan Uslar*. Alabaina, berriz ere patua okertu zitzaion Ametzagari eta 1967ko lurrikarak lauhun urtemugako ekintza guztiak gibelatu zituen, hortaz ez zen argitalpen gehiago bideratu.

Bere azken liburua 1967an plazaratu zuen, *El Hombre Vasco* izenburuarekin. Jardunaldi ez-

berdinen pilaketaren fruitua da hau. 1961ean eusko etxeko Eusko Gaztediko talde batek Bingeni Euskal Kulturako kurtso bat eskaintzeko eskatu zion. Bingenek baietz esan eta hiruzpalau hilabetez luzatu zizkien klaseak. Irujok *Ekin* argitaletxean plazaratuko zituela iragarri zion. Aldi berean Bolívarren omenez *Revista Bolivariana*-n idatzitako olerki epikoa ere argitaratu zuen Ametzagak urte horretan.

Manuel Irujok, 1966tik Ametzagaren aita-ginarrebakide, Euzko Alderdi Jeltzalearen *Declaración de Principios* delako dokumentua idazteko eskatu zion, 1966ko urtarilaren



Vicente Arnoriaga erbestean jaioetako margolari euskaldunak Caracasko eusko etxearen 50. urtemugan egindako euskaldunen txokoaren ibilbide historikoaren errepresentazio simbolikoa.

26an Euzko Alderdi Jeltzaleak plazaratutako «Euzko Erriari deklarazioa»ren oinarria alegia. Bitartean, eusko etxean euskara klaseak eskaintzen jarraitu zuen. 1967ko urriaren 16ean Venezuela guztiko euskaltzaleentzat irratitik ematen hasiko ziren euskara klase hauek. 1968an euskararen alde egindako lanarengatik Euskal Jakintzaren Lagunak elkartearen lehendakaria izendatu zuten Ametzaga.

Joseba Bingenek gibekeko minbizia diagnostikatu zion aitari 1969ko urtarrilean. Arantzazuk eta Joseba Bingenek ez zioten aitari

ezer esan ordea. Mirentxu eta Begoñari idatzi zieten aita azkeneko aldiz ikusteko etor zitezten. Bingenek ez zuen minik sentitzen baina ezin zuen bisitarik jasan. Oxigenoa eta odola behar zituen; eusko etxean deia zabaldu eta odol berdina zuten lagun guztiak zuzeneko transfusioa egiteko bolondres ospitalera bertaratu ziren. Azken ebakuntza egiteko zeramatarik, *hator, hator mutil etxera* abesten ikusi zuten azken aldiz bizirik seme-alabek. Horiek izan ziren bere atzen hitzak. Arratsaldeko 4etan apaizak azken igurtzia



Arantzazu Ametzaga Iribarren bibliotekonomian lizentziatua. Olerkaritza, nobela eta historiografia landu duelarik aitaren ildo jarraitu du alabak.



Joseba Bingen Ametzaga, gaur egun Hospital Central de Venezuela-ko kardiologia sailaren zuzendaria.



Algortako Bingen Ametzaga plaza, 1982an inauguratua.

eman zion. Otsailaren 4an, asteartea, goizean goiz alde egin zuen. Idazki batean amak seme-alabei irakurri zien aitaren hil aurreko gogoe-ta: «seme alabak, gauza bakarra geratzen zait esateko, maita ezazute elkar eta maitatu zuen herria eta zuen hizkuntza gurasook zuek maitatu zaituztegun bezala, agur guztiok».

Alemaniera eta italiera apunteak eta zenbait itzulpen burutzeaz utzi zituen Ametzagak

bere idazmahaiaren gainean, besteak beste, Shakespeareren *Romeo eta Julieta*, Danteren *Jainkozko Komedia* eta Omar Kheyyamen *Rubaiyat*. Bai eta Euskal Herrira itzultzeko Algortatik 1937an ekarritako baliza ere, amets baten esperantzaren ikurra, logelako armairuaren gainean. Algortako herriak plaza bat eraiki du Bingen Ametzagaren omen eta oroitzapenean, itsasoari begira, harriluzeko ibilbidean.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Bingen Ametzaga Iribarren.*
- *Arantzazu Ametzaga Iribarren eta Pello Irujo Elizalde.*
- *Txispi Urdiratz Aritz.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2001eko azaroa

Ale-kopurua: 2.325

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Beato Tomás de Zumárraga, 66 - 01009 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1767-7
84-457-1768-5

L.G.: VI-513/01

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística